

2026ko UDAKO PLANA

AISIALDI CORAZONISTAREN logoa bihotz bat duen esku ireki bat da. Bost hatzetako bakoitzak balio korazonista bat adierazten du: “bihotz” hatzak **ESPIRITUALITASUNAREN** balioa adierazten du, maitasunaren indarra. Inguruan bi hatz ditu, hatz erakuslea **ERRUKIA** adierazten duena eta eraztun-hatza **KONFIANTZA** adierazten duena. **UMILTASUNA** da hatz txikian aurkitu dezakegu. Hatz lodiak, indartsuenak, **ESFORTZUAZ** hitz egiten digu.

SAKON HAZI

Kanpora begiratzera etengabe gonbidatzen gaituen munduan, uda honetan zerbait desberdina proposatu nahi dizugu: **gelditzea, arnasa hartzea eta barrutik haztea**. Elkarri entzuteko denbora hartzea, zerk mugitzen gaituen eta bizi dugunari zentzua zerk ematen dion jakitea. Hazkunderik garrantzitsuena ez delako beti ikusten, baina arrastoa uzten du

Barrutik haztea kontzientzia gehiagorekin ibiltzea da, bihotzean gertatzen dena irakurtzen ikastea eta urrats bakoitzean lagun dugun espiritualtasun batera irekitzea. Isiltasunaren, topaketaren eta esperientzia partekatuen alde borrokatzea da.

Udako esperientzia hauek tokatzen zaizun unea bizi dezazun pentsatuta daude, benetan inplikaturik eta bihotz-bihotzez gozatuz. Barrutik indartzeko eta begirada sakonago batekin itzultzeko pentsatuta dauden ekintzak bizitzeko. Uda honetan zuek bertan egotea espero dugu.



KORAZONISTA AISIALDIKO TALDE PROBINTZIALA

IZENA EMATEKO ETA PLAZAK ESLEITZEKO PROZESUA

Jakinarazi nahi dizuegu 2026ko Donejakue Bidea kanpalidko plazen aurretiazko izen-emate prozesua **martxoaren 24tik (asteartea) apirilaren 17ra (ostirala)** egongo dela zabalik. Epe horretan, hasierako aurreinskripzioa egingo da. Parte hartzeko eskaerak formulario honen bidez jasoko dira: <https://forms.gle/zAA3WnBHdaDZdbny6>

Apirileko azken astean, izena emateko epea itxi ondoren, formulario horri bete duten guztiekin harremanetan jarriko gara, plaza esleitu zaien edo itxaron-zerrendan geratu diren jakinarazteko. **Plazak esleitzeko orduan lehentasuna izango dute ikasturtean eskoletako aisialdi-taldeetan parte hartu duten pertsonak**. Aisialdi-talde bakoitzak ezarriko ditu jarduera bakoitzeko plazak esleitzeko beharrezkotzat jotzen dituen irizpide gehigarriak.

Plazak esleitu ondoren, bigarren formulario bat bidaliko zaizue. Bertan, jarduera garatzeko behar den informazio guztia eskatuko da eta formulario horren bitartez ere ordainketa gauzatuko da.

Ordainketa egiaztatu eta izena emateko prozesua amaitu ondoren, jardueraren arduraduna parte-hartzaileen familiekin harremanetan jarriko da, jarduerari buruzko informazio guztia emateko egingo diren bilerak zehazteko.

Zalantzaren bat sortzen bazaizue edo kontsultaren bat baduzue, jar zaitezte harremanetan zuen ikastetxeko pastoral edo aisialdiko arduradunarekin.

Jarraian, **2026 Donejakue Bidea kanpaldiaren** buruzko informazio gehiago bidaltzen dizuegu.

DONEJAKUE BIDEA

HARTZAILEAK:	Batxilergoko 1. maila
TOKIA:	Astorgatik (León) Compostelako Donejakueraino
DATAK:	Ekainaren 30etik uztailaren 12ra.
PREZIOA:	425€ gutxi gorabehera (parte-hartzaile kopurua jakiterakoan zehaztuko da behin betiko kuota).
HELBURUAK:	- Erromes bihurtzea Santiago Bideko 11 etapa eginez - Batez besteko 25 km egunero egitea (goizez 5-6 orduko ibilera) -Ditugun ondasun txikiak elkar banatzea: dirua, janaria, festa, atsedena... - Solidaritate, topaketa eta austeritate esperientzia

DONEJAKUE BIDERAKO IZEN-EMATE GALDETEGIA: [HEMEN](#)

